

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko martxoaren 6tik martxoaren 10era

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


ASTE HONETAN MERKATUETAN

GURE IKUSPEGIA

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EUROGUNEAREN BPGd



Datuaren analisia

Eurogunearen BPGd-a % 0,4ko erritmoan hazi zen 2016ko laugarren lauhilekoan, eta % 1,7an urte artekoan, analisten aurreikuspenekin bat etorriz. Europako ekonomiak, beraz, bere hazkunde-erritmo apalari eutsi dio, hirugarren hiruhilekoan ere BPGd-ak % 0,4 egin baitzuen aurrera. Osagaiei begiratuta, inbertsioaren berreskurapena nabarmendu behar da, hiruhilekoan +% 0,6 hazi baita. Kontsumo pribatuak bere hazkunde-tasari eutsi dio, +% 0,4. Sektore publikoak ekarpen positiboa egin zuen (+% 0,4 hiruhilekoan), kanpo sektorearen ekarpen negatiboa orekatzeko balio izan zuena.

Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Euroguneak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztikoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA:EBZ-REN BILERA

	PIB			
	2016	2017	2018	2019
jun-16	1,6%	1,7%	1,7%	-
sep-16	1,7%	1,6%	1,6%	-
dic-16	1,7%	1,7%	1,6%	1,6%
mar-17		1,8%	1,7%	1,6%

	INFLACIÓN			
	2016	2017	2018	2019
jun-16	0,2%	1,3%	1,6%	
sep-16	0,2%	1,2%	1,6%	
dic-16	0,2%	1,3%	1,5%	1,7%
mar-17		1,7%	1,6%	1,7%

Datuaren analisia

EBZk finantzaketa-eragiketa nagusien (% 0,0), kreditu-eraztasunaren (% 0,25) eta gordailuen (-% 0,40) interes-tasa bere horretan mantendu du. Neurri ezohikoei dagokienez, erakundeak horiei eutsiko diela baieztatu du. Aurrerantzean ere, gaur egungo erritmoan erosiko ditu aktiboak (80.000M € hilean), martxoaren amaierara arte. Apiriletik aurrera, aktiboen erosketa garbiak beste 9 hilabetez luzatuko ditu, 2017ko abendura arte edo epe luzeago batez, beharrezkoa balitz, baina hilean 60.000M euroko erritmoan. Gainera, EBZk gorantz berrikusi zituen urte honetarako eta 2018rako hazkundearen eta inflazioaren aurreikuspenak.


Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak bultzatu beharko ditu ere, haren helburuak bete dituzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisia

Otsailan, Estatu Batuetako ekonomiak 235.000 enplegu sortu zituen. Kopuru hori analistek aurreikusten zituzten 200.000 lanpostuetatik gora dago. Gainera, langabezia-tasa hamarren bat erori zen, urtarileko % 4,8tik % 4,7ra, eta soldatak % 0,2 igo ziren, orduko 26,09 dolarretaraino. Orduko soldata % 2,8 hazi da 2016ko otsailetik 2017ko otsailera, aurreko hilean bezala, datua berrikusi ondoren. Lan egindako orduak astean 34,4 izan ziren berriro ere.


Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: KPI



Datuaren analisia

Txinako kontsumoko prezioen indizearen urte arteko tasa % 0,8 igo zen otsailean, urtarrilean % 2,5 igo ondoren. Analisten kalkuluen arabera, otsailean % 1,6 egin behar zuen gora. Nolanahi ere, ilargi-urte berriaren ospakizunek egutegian izan duten eragina nabari da adierazlean. Nabarmenezkoa da elikagaien prezioen jaitsiera: urte arteko % 4,3ko murrizketa eman da otsailean, urtarrilean % 2,7ko igoera izan ondoren. Horren ondorioz, prezioen indizea, elikagaiak kenduta, % 2,2 igo zen otsailean, urtarrileko % 2,5aren ondoren.


Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BEHIN BETIKO KPIa 2016 4HIR



Datuaren analisia

lazko urrian eta abenduan, Japoniako Barne Produktu Gordinak % 0,3 egin zuen gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Aurreko hilean argitaratutako lehenengo kalkuluan baino hamarren bat gehiago da hori. BPGd-aren gorako berrikuspena batez ere kapital korporatiboaren inbertsioaren ondorio izan zen. Datu horrek berebiziko garrantzia dauka Japoniako ekonomian, eta haren hiruhileko igoera % 0,9tik % 2ra aldatu zen. Bestalde, kontsumoa, Japoniako BPGd-aren % 60 ingurukoa den osagaia, bere horretan mantendu zen, hala urte artekoan nola hiruhilekoan.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
13/03	Japonia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	1.0%
13/03	Italia	Hileko industria-ekoizpena	-0.5%
14/03	Txina	YTD YoY industria-ekoizpena	6.2%
14/03	Alemania	Urte arteko KPIa	2.2%
14/03	Espainia	Urte arteko KPIa	3.0%
14/03	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	0.9%
14/03	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	77.7
14/03	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	12.0
14/03	Estatu Batuak	YoY IPP elikagairik eta energiari gabe	1.4%
15/03	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
15/03	Frantzia	Urte arteko KPIa	1.2%
15/03	Italia	Urte arteko xehekako salmentak	--
15/03	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	4.8%
15/03	Eurogunea	Urte arteko enplegua	--
15/03	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	1.6%
15/03	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	2.7%
15/03	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	-0.1%
15/03	Estatu Batuak	FOMC tasen erabakia (sabaia)	1.00%
15/03	Estatu Batuak	Tasen erabakia Erreserba Federala	0.75%
16/03	Espainia	YoY lan-kostuak	--
16/03	Eurogunea	Urte arteko KPIa	2.0%
16/03	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	0.250%
16/03	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	0.7%
16/03	Estatu Batuak	Eraikitzeke baimenak	1253k
16/03	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
16/03	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	28.0
17/03	Italia	Balantza komertziala guztira	--
17/03	Eurogunea	Balantza komertziala SA	24.1b
17/03	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	0.2%
17/03	Estatu Batuak	Sentimendua Michigango Unibertsitatea	97.0

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Munduko burtsa nagusiek itxiera mistoak izan zituzten.

Europar, Frantziako hauteskundeak arreta-gune izan ziren, Alain Juppék presidentetzarako lehian ez parte hartzea erabaki ondoren eta François Fillon zentro-eskuineko alderdiaren hautagaia izango dela baieztatu ondoren. Legearekin izandako arazoaren ondorioz Fillonek ospea galdu ondoren, merkatuaren zenbait esparrutan albisteak eragin negatiboa izan zuen.

Hala ere, aste honetan espero zen hitzordua EBZren bilera zen. Erakundeak baikor agertu zen, eta interes-tasak egonkor mantendu zituen. Gainera, erakundeak gorantz berrikusi zituen urte honetarako eta 2018rako hazkunderaren eta inflazioaren aurreikuspenak. AEBetan, asteko hitzordu nagusiak bereganatu zuen arreta osoa: enpleguari buruzko txosten ofizialaren argitalpena. Otsailean 235.000 enplegu sortu ziren, esperotako 200.000en gainetik. Kopuru horiekin, Fed-ek bidea garbi du datorren asteazkenean interes-tasak igotzeko. Sektoreka begiratuta, lehiakortasuna handitzeko eta prezioak murrizteko Trumpek egin zuen iragarpenak kalte egin zien enpresa farmazeutikoei.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2016
MSCI WORLD (Local)	1.433,81	-0,17	5,10
IBEX 35	10.006,40	2,12	7,00
DJ EURO STOXX 50	3.416,27	0,38	3,82
DJ STOXX 50	3.101,36	-0,50	3,02
FTSE	7.343,08	-0,42	2,80
S&P 500	2.372,60	-0,44	5,97
Dow Jones	20.902,98	-0,49	5,77
NASDAQ	5.861,73	-0,15	8,89
NIKKEI 225	19.604,61	0,70	2,56
MSCI EMERGENTES (Lo	50.137,74	-0,37	5,22
MEXBOL	47.102,31	-0,66	3,20
BOVESPA	64.675,46	-3,16	7,39
SHANGHAI	3.364,10	-0,17	3,52
Rusia Rts Moscú	1.055,93	-4,72	-8,37

ERRENTA FINKOA:

TIREek, oro har, gora egin zuten zor subiranoan, batez ere periferian. EBZren baikortasun ekonomikoak tasen goranzko mugimenduak eragin zituen. Hamar urterako bonu alemanaren errentagarritasunak 13op egin zuen gora, % 0,49raino; espainiar bonuan, aldiz, mugimenduak handiagoak izan ziren, eta hamar urterakoak 21op egin zuen gora, % 1,89raino, eta arrisku-primak ere 8op handitu zen, 140 puntuetaraino. AEBetan Europako joera bera ikusi dugu, eta hamar urterakoak % 2,57ra iritsi da, 10 op aurrera egin ondoren. Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

Tipos Gobiernos	Nive
ALEMANIA 2 AÑOS	-0
ESPAÑA 2 AÑOS	-0
EE.UU 2 AÑOS	1,
ALEMANIA 10 AÑOS	0,
ESPAÑA 10 AÑOS	1,
EE.UU. 10 AÑOS	2,
ALEMANIA 30 AÑOS	1,
ESPAÑA 30 AÑOS	3,
EE.UU. 30 AÑOS	3,
Spread de credito (pb)	
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	71
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	283

DIBISAK/LEHENGAIK:

Draghik izan duen tonu positibagoak eragina izan du Europako dibisan, eta astearen amaieran % 1,01ean zegoen dolarrarekiko. Euroak ere balioa irabazi zuen yenaren eta liberaren aurrean. Lehengai dagokienez, petrolioaren prezioa % 7,89 jaitsi zen, merkatuko gehiegizko eskaintza baten aurreko kezkenetik. Urreak,

Divisas	Nive		
Dólar / Euro	1,		
Yen / Euro	122		
Libra/ Euro	0,		
Materia Primas	Nivel	%Variación	% Var

azkenik, erakarmena galdu eta % 2,42 egin zuen atzera.

Petroleo	(Brendt)		50,6
Oro		1.204,73	

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.